



Osakidetza



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KANGURU AMA METODOA: PRAKTIKA ERAGINKORRA AL DA JAIOBERRI GOIZTIAR EDOTA PISU BAXUKOEN BIZI-KONSTANTEAK EGONKOR MANTENTZEKO?

Gradu Amaierako Lana

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

2018/2019 Ikasturtea

Egilea: Arlet Sixto Arroyo

Zuzendaria: Yolanda Gago Rodriguez

Hitz kopurua: 5977

Gasteizen, 2019ko maiatzaren 10ean.

ESKER ONAK:

Nire zuzendariari, Yolanda Gago, ikasturte honetan zehar emandako laguntzagatik eta transmititutako aholkuengatik lan hau aurrera eraman ahal izateko. Mila esker denbora honetan izandako pazientziagatik.

Baita ere eskerrik onenak nire familiari, batez ere gurasoei, momentu on eta txarretan nire ondoan egoteagatik eta une orotan izandako ulermenagatik.

AURKIBIDEA

SARRERA:	3
MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA:	4
HELBURUA:	8
METODOLOGIA:	9
EMAITZAK ETA EZTABAIDA:	11
TENPERATURA:	12
BIHOTZ MAIZTASUNA:	14
OXIGENO SATURAZIOA:	16
TENTSIO ARTERIALA:	18
ARNAS MAIZTASUNA:	18
ONDORIOAK ETA LIMITAZIOAK:	21
BIBLIOGRAFIA:	23
ERANSKINAK	28
1.ERANSKINA: JAIOBERRIA KANGURU POSIZIOAN KOKATZEA	29
2.ERANSKINA: SINONIMOEN TAULA	30
3.ERANSKINA: BILAKETA-EKUAZIOAK	37
4.ERANSKINA: FLUXU DIAGRAMA	45
5.ERANSKINA: IRAKURKETA KRITIKOA	46
6.ERANSKINA: LABURPEN TAULAK	52
7.ERANSKINA: ZUHAITZ KATEGORIALA	62

SARRERA:

Marko teorikoa eta justifikazioa: Kanguru Ama Metodoa jaioberria amarekin azalez azaleko kontaktuan oinarritzen den praktika da, amarentzat eta jaioberriarentzat onura handiak ekar ditzakeena, batez ere jaioberri goiztiar edota pisu baxukoentzat. Teknika sinplea denez, inkubagailuak bezalako ekipamendu garestien erabilera murrizten du eta aldi berean ospitalizazio egunak gutxitzen dira. Osasun Mundu Erakundeak (OMEk) dioenez, urtero 15 milioi jaiotze goiztiarrak ematen dira munduan zehar, 10 jaiotzetik bat baino gehiago. Horietatik, milioi bat ume hiltzen dira erditzean agertzen diren konplikazioak direla eta. Pisu baxuko jaiotzei dagokionez, mundu mailan jaioberrien %15a pisu baxukoak jaiotzen dira. Jaioberri hauek paira dezaketen konplikazioei atentzia ematea karga handia bihurtu da osasun sistemarentzat mundu mailan, kostu fisiko, psikologiko eta ekonomiko handiak sortaraziz, saihesgarriak izan daitezkeenak.

Helburua: Kanguru Ama Metodoaren eraginkortasuna aztertzea jaioberri goiztiar edota pisu baxuko jaioberrien bizi konstanteak egonkor mantentzeko.

Metodologia: 2008-2018 urteen arteko artikulua erabili dira, salbuespena izan ezik non 2004ko iturriak hautatu diren. Hautatutako artikulua ingelesez izan dira. Erabilitako hitz-gako nagusiak '*Kangaroo-Mother Care Method*', '*Infant, premature*', '*Infant, Low Birth Weight*' eta '*Vital Signs*' izan dira. Bilaketa-ekuazioak datu base desberdinetan burutu dira (Medline, CINAHL, CUIDEN, LILACS) eta horrez gain, esku bilaketak egin dira OMEn, ebidentzian oinarritutako datu baseetan (Cochrane eta RNAO) eta aldizkari desberdinetan. Azkenik, 20 artikulua hautatu dira emaitzetarako.

Emaitzak eta eztabaida: Ume goiztiarrak edota pisu baxukoak haien heldugabetasuna dela eta, termorregulaziorako arazoak izaten dituzte. Ikerketek Kanguru Ama Metodoa hipotermia saihesteko metodo eraginkorra dela ondorioztatu da, umea beroa mantenduz. Bihotz-maiztasunari dagokionez, umeek estabilizatuta mantendu dira. Tentsio arterialean igoera ikuskatu da, posturarekin erlazionatuta egon daitekeena, betiere umea egonkor mantenduz. Bestetik, azalez azaleko zainketetan umeak hartzen duen posizioak arnas mekanika hobetzeko lagungarria dela erreparatu da. Azkenik, oxigeno saturazioari dagokionez, kontraesanak ikusi dira ikerketen artean, non batzuk desaturazioaldiak egon direla behatu duten eta beste ikerketa batzuk, berriz, balore normaletan mantendu direla esaten duten.

Ondorioak: Nahiz eta Kanguru Ama Metodoak jaioberriengan ekar ditzakeen onurak ikusi, batez ere goiztiarretan eta pisu baxukoetan, oraindik honen inguruan jakintza eta ikerketa gehiago egitea beharrezkoa da, modu egokian praktika aurrera eramanez.

MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA:

Kanguru Ama Metodoa jaioberri guztiei zuzenduriko zainketa teknika bat da, bereziki goiztiarretan eta pisu baxukoetan zentratu dagoena, behin egonkortuta daudenean ¹. Praktika hau ama eta jaioberriaren arteko azalez azaleko jarraiko kontaktu zuzenean eta luzatuan datza, non umea bertikalki kokatzen den amaren bularraldean eta aldi berean, edoskitze naturala areagotzen den. Zainketa mota hau ospitalean hasten da eta etxean jarraitzen da, alta goiztiarra suspertuz. ²⁻⁵. Ospitalean hasi ondoren, amak etxean metodoarekin jarraituko du jaioberriak gestazioko 40 asteak bete arte edo 2,5kg-etara ailegatzerakoan ^{6,7}.

Metodo honen hasiera 1978an izan zen Bogotan (Kolonbia), inkubagailuen gabezia zela eta. Jaiotza tasa altuen ondorioz, inkubagailuak elkarbanatu behar ziren, infekzio nosokomialen igoera suposatu zuenak eta horrekin batera, mortalitate-tasa igo zen ²⁻⁴. Beraz, errekurso garesti eta eskasiagatik hasi zen metodo hau martxan jartzen herrialde azpigaratuetan eta dakartzan abantailak ikusita, munduko ospitale guztietatik hedatzen joan da denborarekin. Gaur egun, garapen bidean dauden herrialdeetan erabiltzen den teknika bat izateaz aparte, herrialde garatuetan inkubagailuarekiko zainketa osagarri bat bihurtu da ⁷.

Teknikari dagokionez, jaioberria amaren bularraldean jarri behar da posizio bertikalean, umearen eta amaren bularrak kontaktuan geratuz. Umea gerriko baten bidez eutsiko da, oihalaren goiko partea belarriaren behean egonda. Burua alde batera biratuta eta pixka bat luzatuta egon behar da, arnasbideak zabalduak mantentzeko eta amarekiko kontaktu bisuala bermatzeko. Umeak izango duen jarrera, beraz, igel baten antzekoa izango da, hau da, aldakak makurtuta eta hankak luzatuta (*1.Eranskina*). Umeari jarri behar zaion arropari dagokionez, ingurugiroko tenperaturaren arabera izango da; Hau 22/24°Ckoa izanez gero, jaioberriak pixoihala, txanoa eta galtzerdi batzuk eraman beharko ditu. Tenperatura 22°C baino gutxiagokoa bada, umeak kotoizko kamiseta bat eraman beharko du, mahukarik gabekoa eta aurreko partetik irekia dena. Modu honetan, umearen aurpegia, bularra eta gorputz-adarrak amaren bular eta sabelaldearekin zuzeneko kontaktuan egongo dira. Amari dagokionez, bere ohiko arropa jarriko du, honekin ama eta umea estaliak geratzeko ⁸.

Orokorrean, metodo honetan ama izaten da zainketak ematen dituen arduradun nagusia, nahiz eta aitak edo beste zaintzaile batek parte har dezakeen zainketetan ⁹. Kanguru Ama Metodoan bi modalitate aurki ditzakegu; Alde batetik, etengabeko metodoa, non jaioberriak 24 orduz egoten den azalez azal gurasoekin edota zaintzaileekin tartekatuz. Sistema jarrai hau Kanguru Programetan sartuta dago, bai garatutako herrialdeetan bai garapen bidean dauden herrialdeetan ere. Bestetik, aldizkako metodoa aurkitzen da, goi-mailako teknologia ezarrita duten ospitaleetan erabiltzen dena nagusiki. Sistema honetan, amak egunean zehar eta periodo laburretan izaten du umea azalez azal. Iraupenari dagokionez, orokorrean saio bakoitzak ordu batetik hiru ordutara iraun dezake, eta denbora osoan zehar monitorizazioa mantendu behar da ⁵.

Monitorizazio egokia bermatzeko ezinbestekoa da jakitea zeintzuk diren kontuan hartu beharreko bizi konstanteak eta hauen balore normalak jaioberrietan. Bizi-konstanteen artean bihotz-maiztasuna, arnas-maiztasuna, oxigeno saturazioa eta gorputz-tenperatura aurkitzen dira. Tentsio-arteriala ez da guztiz bizi-konstante bat bezala hartzen nahiz eta beste konstanteekin batera neurtu. Balore hauetan irregulartasunen agerpena garrantzi handia dauka zenbait gaixotasunen diagnostikoan, beraz, umearen eboluzioa aztertzeke erabilgarriak dira ¹⁰. Maila normalak jaioberriengan hurrengo hauek dira: Bihotz-maiztasuna 120/160 taupada minutuko, arnas-maiztasuna 40/60 arnasketa minutuko, presio arterial sistolikoa 40-70 mmHg-koa da eta diastolikoa 20-45 mmHg-koa ¹⁰. Tenperaturari dagokionez, baloreak 36.5°Ckoa besapean eta 37.5°Cko ondestetik dira¹¹. Oxigeno-saturazioaren aldetik, %88tik %93en arteko parametroak jaioberri goiztiarren onuragarriak direla behatu da ¹².

Metodo honek zenbait abantaila ekartzen ditu jaioberrietan; Alde batetik, amagandiko edoskitzea suspertzen da, interbentzioak baimentzen duen kontaktu estuak edoskitzea luzatzearekin eta esne kantitatearen produkzioaren handipenarekin erlazionatuta baitago. Modu honetan, umeak pisua irabazten du eta amaren esneak dituen eragin positiboaz aprobetxatzen da, hala nola, infekzio arriskua murrizten, edota jaioberriaren hazkuntza eta garapen neurologikoa suspertzen. ^{8,13}. Bestetik, ospitalizazio momentuan ager daitezkeen gaixotasunen konplikazioak eta infekzio nosokomialatik babesteko baliagarria dela behatu da, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan onura handienak ikusi dira. Loari dagokionez, azalez azaleko kontaktuaren bitartez umeek lo tarte handiagoak izatea lortzen dute, non loa egonkorragoa eta sakonagoa den ^{5,14}.

Umeari dakartzkion onurekin jarraituz, Kanguru Ama Metodoa praktikatzekoan, umeak amaren bihotz-taupadak eta arnasketa entzuteaz gain, jarrera egoki eta bero batean dago. Honek eragin handia dauka umearen entzumen-, ukimen-, eta sistema termiko sensoriala suspertzeko orduan. Modu honetan, minaren pertzeptzioa aldatzen da erantzun fisiologikoak murriztuz eta estabilitate fisiologikoa mantentzen da erantzun neurosensoriala hobetuz ^{2-4,8}.

Aldi berean, Kanguru Ama Metodoak efektu positiboak ditu gurasoen eta umearen arteko harremanetan. Alde batetik, atxikimendua hobetzen du, bien arteko lotura estutuz eta estresa arinduz ^{7, 9, 15-17}. Horrez gain, erditu ondoren amarengan ager daitezkeen depresio sintomak txikitzen ditu. Gainera, praktika hau gurasoek jaioberrien behar fisiko eta emozionalak zeintzuk diren ezagutzeko baliagarria da, sentikorrak bihurtzen baitira umeak transmititzen dituen seinaleei. Modu honetan, mailaz mailako erantzukizuna hartuko dute zainketetan ^{6,7}.

Lehen esan bezala, nahiz eta jaioberri guztietan erabili daitezkeen, aipatutako onura guztiak jaioberri goiztiarretan eta pisu baxukoetan areagotzen dira. Jaioberri goiztiarra gestazioko 37. aste edo lehenago jaiotako umei deitzen zaie eta pisu baxukoak, berriz, 2.500 gramo edo gutxiago pisatzen dutenei, haien adin gestazionala kontuan izan gabe ^{18,19}. Goiztiarren ezaugarriekin jarraituz, adin gestazionalaren arabera, zenbait azpitaldeetan bereizten dira: zeharo goiztiarra (28. aste baino gutxiagokoa), oso goiztiarra (28. astetik 32. asteetara) eta

goiztiar moderatua (32-37. asteen artekoa). Zenbat eta adin gestazionala txikiagoa izan, mortalitate-tasa handiagoa da ^{5,15}. Jaiotze goiztiarren %45-50ak jatorri idiopatikoa dute, %30ak mintzen apurketa goiztiarrarekin erlazionatuta dago eta gainerako %15-20en erditze goiztiarrak medikuak agindutakoak dira ²⁰.

OMEn esanaren arabera, urtero 15 milioi ume goiztiar jaiotzen dira munduan zehar, hau da, 10 jaiotzetik bat baino gehiago. Horietatik, milioi bat ume hiltzen dira erditzean agertzen diren konplikazioak direla eta ²¹. Espainian, zehazki, jaiotze goiztiarrak %8-10ren artean aurkitzen direla balioesten da ⁷. Datu hauek garrantzi handia hartzen dute jaiotze goiztiarra heriotz neonatalaren kausa nagusia izanez eta 5 urte beherakoen umeen artean bigarrena, pneumonia ondoren⁶. Pisu baxuko jaiotzei dagokionez, mundu mailan jaioberrien %15a pisu baxukoak jaiotzen dira, erditze goiztiarren ondorioz edota umetoki barnean hazkuntza atzerapenen ondorioz. Ume hauetan %70rainoko heriotz-tasa eman daiteke, pisu baxuko umeetan mortalitate-tasa 10-20 bider altuago izanez pisu normala dutenekin konparatuz ^{4,16,19}.

Beraz, pisu baxua eta jaiotze goiztiarra urte bat baino gutxiagoko umeen arteko mortalitate- eta morbillitate-tasa altuekin estuki erlazionatuta dago. Ematen diren 4 milioi-heriotz neonataleetatik, bostetik batek jaiotze goiztiar eta pisu baxukoei dagokie ⁸. Orokorrean, heriotz-tasa altuena herrialde azpigaratuetan aurkitzen da, teknika espezializatuak erabiltzeko baliabide ekonomiko eskasiaren ondorioz ². Bestetik, bizirauten duten jaioberrien hauen artean, askok konplikazioak pairatzeko joera izaten dute²¹. Alde batetik, jaioberri goiztiarrak hazkuntza eta desgaitasun kognitiboak (ikasteko desgaitasunak, memoria arazoak, atentzioan eta portaeran alterazioak...), defizit sensorialak eta gaixotasun larriak garatzeko arrisku altuagoa dute beste jaioberriekin konparatuz^{16,20,22}. Bestalde, pisu baxuko jaiotzak, goiztiartasunarekin batera, konplikazio larriekin estuki lotuta dago, hots, garapen neurologikoaren atzerapenarekin, arnas-alterazioekin eta bestelakoekin, non umeak atentzio luzatua behar izango duen. ^{19,23}. Horrelako konplikazioak pairatzen duten jaioberriei atentzioa ematea karga handia suposatzen du osasun sistemarentzat mundu mailan, kostu fisiko, psikologiko eta ekonomiko handiak sortaraziz ²⁰. Gainera, konplikazio hauek saihegarriak dira arreta sanitario eraginkorra emanez erditze momentuan eta geroago, bai amari bai umeari. Hauen barnean injekzio esteroide prenatalak, Kanguru Ama Metodoaren aplikazioa eta jaioberriari antibiotikoak ematea infekzioak tratatzeko sartzen dira, besteak beste ²¹.

Hortaz, interbentzio mota hau jaioberriarentzat eta amarentzat dakartzan abantaila guztiak ikusita, onuragarria izango litzateke ikusgarritasuna ematea bere erabilera sustatzeko. Izan ere, teknika sinplea denez inkubagailuak bezalako ekipamendu garestien erabilera murrizten du, teknologia modu neurridun batean erabiltzeko. Aldi berean, jaioberriek ospitalizazio egun gutxiago ematen dituzte eta horrek kostu ekonomikoa murrizten du²³. Hala ere, Kanguru Ama Metodoan oinarritutako zainketetan oraindik sinesmen gutxi dago osasun profesionalen aldetik eta horrez gain, metodo honen inguruko ezagutzak mugatuak direnez, praktikan jartzerako orduan mugapen asko daude ¹⁷.

Espainian zehazki, 2012an, unitate neonatal askotan metodoa aplikatzen hasi ziren ohiko moduan, gurasoei sarbidea onartzearekin batera. Hala eta guztiz ere, oraindik orokortu ez den praktika bat da. 2014. urtean burututako ikerketa baten arabera, Espainia, Europako herrialdeen artean, Kanguru Ama Metodoa martxan jartzeko mugapen handienetarikoak jartzen dituen herrialde bat da, unitate desberdinen artean heterogenitate handia baitago ²⁴. Beraz, hau ezartzeko protokolo baten sorrera ezinbestekoa da jaioberrien unitateetan. Praktika hau egituratuta ez badago, amek denbora gutxiago egongo dira Kanguru Metodoa aplikatzen ⁷.

Jaioberriari arreta egokia emateko eta zainketa egokiak egiten direla bermatzeko, erizainaren papera ezinbestekoa da, non garrantzitsua den arlo honen inguruan oinarrizko formakuntza bat izatea. Lehenengoz, garrantzitsua da jakitea noiz eta nola hasi behar den metodo hau martxan jartzen. Bestetik, inkubagailutik kanguru posizioan jartzeko momentua oso delikatua da, batez ere oso goiztiarrak diren umeetan. Horregatik erizainek prestakuntza egokia izan behar dute umea posizio egokian jartzeko eta konplikazioen bat agertuz gero, behar diren ekintzak burutzeko gai izateko^{7,8}. Bestetik, altari begira ingurunearen aldaketei buruz hezkuntza ematea ezinbestekoa da Kanguru Ama Metodoa modu seguruan inplementatzeko, hala nola, pribatutasuna mantentzea estresoreak saihesteko, eserleku erosoan erabilera... sustatuz ²⁵. Edoskitzeari dagokionez, osasun profesionalak umea edoskialdi bakoitzean nola jarri behar den jakin behar dute, zer nolako elikadura eraman behar duten ume goiztiar edota pisu baxukoak... edoskialdiak eraginkorrak izateko. Bestetik, erizainen interbentzioa ezinbestekoa da gurasoei zainketetan inplikatzeko, hala nola, kanguru posizioa nola burutzen den erakusteko gurasoek etxean bakarrik egin ahal izateko edo bizi konstanteen garrantzia eta ager daitezketen alarma zeinuak azaltzeko ⁸. Aldi berean, profesionalak amari eta familiari sostengu emozionala ematea oso garrantzitsua da².

Laburbilduz, Kanguru Ama Metodoa erraza eta kostu gutxikoa dela ikusita eta dakartzan onurei erreparatuz, honen erabilpena sustatzeko asmoz aurrera eraman da lan hau. Gainera, erizaintza paper garrantzitsua hartzen du zainketa hauek aurrera eramateko orduan, beraz, ezinbestekoa da honen inguruan ikertzea erizainei ezagutza egokiak eman ahal izateko eta ospitalean zainketa mota hau aurrera eraman ahal izateko.

HELBURUA:

Kanguru Ama Metodoaren eraginkortasuna aztertzea jaioberri goiztiar edota pisu baxuko jaioberrien bizi-konstanteak egonkor mantentzeko.

METODOLOGIA:

Literatura zientifikoaren azterketa kritikoko lan bat burutu da helburuari erantzuna emateko.

Helburuari erantzuna emango dioten artikulua bilatzeko honako bilaketa estrategia aurrera eramana da:

Lehenengoz, lanaren helburua kontuan hartuz, erlazionatutako kontzeptuen taula bat sortu da, non hitz horien sinonimoak eta antonimoak identifikatu diren. Gero, burututako zerrendaren hitzak lengoai kontrolatura pasatu dira datu-base desberdinen tesaurioak erabiliz. Modu honetan, hitz gakoak identifikatu dira. Hitz gako nagusiak 'Kangaroo-Mother Care Method', 'Infant, premature', 'Infant, Low birth weight' eta 'Vital signs' izan dira. 'Vital signs' barnean, bizi-konstante bakoitzari zehazki dagokion hitz gako sartu da, bilaketa emankorragoa izateko asmoarekin (2. *eranskina*).

Behin hauek izanda, datu base desberdinetan bilaketak egin dira, hitz gakoak konbinatuz eta bilaketa-ekuazio desberdinak burutuz, AND eta OR booleanoak erabiliz. Bilaketak Medline, Cochrane, CUIDEN, CINAHL eta LILACS datu baseetan egin dira. Beste alde batetik, eskuzko bilaketa burutu egin da Science Directen, aldizkari desberdinetan eta OMEn. Aldizkari dagokionez, erizaintza arloko, neonato edota aldizkari pediatrikoetan artikulua bilatu egin dira, hain zuzen ere 2. *Eranskinean* agertzen direnak. Bestalde, Science Directen bilaketa egiteko, 'kangaroo care eta 'skin-to-skin' ezarri ziren hitz gako bezala. Azkenik, ebidentzian oinarritutako baseetan ere bilaketak burutu dira, hain zuzen ere, RAO eta Cochranen (3. *eranskina*).

Artikuluak hautatzeko eta emaitzetan sartzeko, lehenengoz jarraitu den irizpidea ezarritako kanporatze- eta barneratze-irizpideak izan dira:

BARNERATZE IRIZPIDEAK:

Argitaratze data: Bilaketa-prozesuan, 10 urte baino gutxiagoko artikulua aukeratuak izan dira. Modu honetan, informazioa ahalik eta eguneratuen izango da. Salbuespen moduan, 2004ko bi informazio iturri hautatu dira ebidentzia altuagatik.

Argitalpen mota: Hautatu diren artikulua motak entsegu klinikoak, kuasi-experimentalak, kohortekoak, errebisio sistematikoak, meta analisiak eta praktika klinikoko gidak izan dira.

Populazioa: Jaioberrien artean, pisu baxukoak edota goiztiarrak diren jaioberriei buruzko artikulua bakarrik hautatu dira. Herrialdeari dagokionez, ez dira bazterketarik egin eta munduan zehar egindako artikulua aukeratu dira. Izan ere, teknika hau mundu osoan erabiltzen da, onurak berdinak izanda. Azkenik, jaioberriak klinikoki egonkortuak egon behar dira, patologia izan edo ez.

Hizkuntza: Gazteleraz edo ingelesez idatzitako artikulua aukeratu dira, horiek baitira menperatutako hizkuntzak.

Helburua: Badaude artikulu batzuk lan honen helburu bera ez dutenak baina emaitzek helburuari erantzuna ematen diotenez aukeratuak izan dira.

KANPORATZE IRIZPIDEAK:

Argitaratze data: 2008 urtetik baino lehenagoko artikuluak deuseztatu dira.

Argitalpen mota: Literatura grisa (aktak, konferentziak, tesiak...) baztertu egin da, horien subjektibotasun maila dela eta.

Populazioa: Egindako ikerketetan jaioberria pisu normala edota epe jaioberria izatekotan, horiek ere baztertuak izan dira. Bestetik, umeak klinikoki egonkor ez egoteak kanporatze irizpide bezala hartu da.


Hizkuntza: Informazioa ingelesez edo gazteleraz ez badago, artikulu horiek baztertuak izan dira.

Ondoren, bilaketa egiterako orduan, artikuluaren titulua eta 'abstract'-a irakurri da eta horren arabera, baliaerriak izan zitezkeen artikuluaren hautaketa egin da. Aukeratutako artikuluaren artean, 'full text'-a lortu izan ahal den artikuluaren irakurketa egin. Datu baseetan eta eskuzko bilaketak kontuan hartuz, guztira 668 artikulu aurkitu dira. Horien izenburua edota abstract-a irakurri ondoren, emaitzetarako baliaerriak izan zitezkeen 55 artikulu hautatu dira irakurketa osoa egiteko. 55 artikuluetatik, 53 aurkitu ziren 'full text'-an baina horietatik 33 artikuluek ez dituzte barneratze-irizpideak betetzen. Hortaz, azkenean 20 artikulu erabili dira emaitzetarako da (4. *eranskina*). Horietatik, kuantitatiboak direnei irakurketa kritikorako gidoia pasatu zaie (5. *Eranskina*). Behin helburuari erantzuna ematen dioten artikuluak izanda horien laburpen taula bat egin da, bakoitzaren ezaugarriak ikuskatzeko eta emaitzetarako baliaerria den informazioa laburtuz, 6. *Eranskinean* ikus daitekeena.


Bukatzeke, 20 artikulu horietatik ateratako informazioaz baliaerriak eta emaitzak ordenatzeko asmoz, zuhaitz kategorial bat egin da. Bertan, informazioa multzokatu eta antolatu da, eta horretarako, bizi-konstante bakoitza banakatu dira (tenperatura, bihotz maiztasuna, arnas maiztasuna, tentsio arteriala eta oxigeno saturazioa) kanguru metodoak konstante bakoitzean zer eragin duen eta ondorioz, pisu baxuko edota jaioberri goiztiarrak egonkor mantentzerako orduan praktika eraginkorra den aztertzeke (7. *Eranskina*).

EMAITZAK ETA EZTABAIDA:

Literaturaren errebisio bibliografikoari erantzuna emateko 20 artikulua hautatu dira. Horretarako, 10 kohorte, 4 kuasi-esperimental, 3 entsegu kliniko, 1 errebisio sistematiko, 1 meta analisisa eta 1 praktika klinikoko gida erabili dira:



Argitarapen urteari dagokionez, hurrengo grafikoan agertzen den bezala banatzen dira artikulua:



Lan honen helburua jaioberri goiztiarretan edota pisu baxukoetan Kanguru Ama Metodoaren eraginkortasuna bizi-konstanteak egonkor mantentzeko orduan aztertzea da. Horretarako, konstante bakoitza banakatu da (tenperatura, arnas-maiztasuna, bihotz maiztasuna, tentsio arteriala eta oxigeno saturazioa) eta bakoitzaren inguruko emaitzak aztertu dira. Lortutako emaitzak hurrengo hauek dira:

TENPERATURA:

OMEk Kanguru Ama Metodoaren praktika klinikoko gidak⁸ aipatzen duen bezala, garapen bidean dauden herrialde batzuetan egindako ikerketak hausnartu dira eta jaioberri goiztiarra edota pisu baxukoa amarekin azalez azal egoteak, Kanguru Ama Metodoan egiten den bezala, umearen tenperatura kontrolatzeko praktika eraginkorra dela ikusi da, hipotermia arriskua murrizteaz gain. Izan ere, jaioberri goiztiarrak haien gorputz-tenperatura erregulatzeko zailtasunak dituzte. Haien nerbio-sistema garatu gabe dute eta horren ondorioz, beroaren ekoizpen desegokia ematen da. Bestetik, pisu baxua izateak eragin handia du, beroa ezin baitute ekoiztu, ezta haien gorputz tenperatura erregulatzeko eta mantentzea²⁶. Hala ere, Ludington-Hoek²⁷ 2011an egindako errebisio bibliografikoan, amaren bularraldean tenperatura aldaketa gehiago burutzen dira umea modu egokian berotzeko, aitaren bularraldearekin eta inkubagailuarekin konparatuz.

Ludington-Hoek²⁷ egindako errebisioarekin jarraituz, Kanguru Ama Metodoak beste praktikekin konparatuz (berotzeko koltxoiak, inkubagailuak, olio beroarekin masajeak ematea...) hipotermia saihesteko zainketa eraginkorrena zela ikuskatu zen, umeak bero mantenduz. Jaioberriak beroago mantentzen ziren Kanguru Ama Metodoan, amen bularrak berotzen baitira umea bertan kokaturik dagoenean, bularraldeko beroa umerantz gidatuz. Jaioberriak bero nahikoa jaso dutenean (gutxi gorabehera 37,4°Cko tenperatura) bularren beroa jaisten da hipertermia saihesteko. Modu honetan, umearen gorputz tenperatura erregulatu da.

Orokorrean, ikerketa desberdinak tenperatura modu egonkorrean mantentzen zela ikuskatu zuten²⁸⁻³⁰: Kohorte ikerketa batean²⁸, non 26 jaioberri aztertu ziren Kanguru Ama Metodoa praktikatzekoan, tenperatura bere tarte hobeetan mantentzen zela behatu zen. Bestetik, Esmot Ara Begum eta bestek²⁹ egindako ikerketan, berriz, 0,3°Cko igoera ikusi zen Kanguru Ama Metodoa praktikatu zen momentuan, emaitzak esanguratsuak izanez ($p < 0.01$) eta umea tenperatura maila egokietan mantenduz.

2014an egindako beste ikerketa batean³⁰, non 3 egunetan zehar bizi konstante desberdinen emaitzak hartu zituzten azalez azaleko kontaktua baino lehen eta geroago, lehen aipatutako ikerketen emaitza berdina aurkitu ziren. Tenperaturari dagokionez, Kanguru Ama Metodoa aplikatu zen bitartean igoera ikuskatu zen, aldaketak estadistikoki esanguratsuak izanez hiru egunetan zehar. Sesioaren hasieran, jaioberri batzuk hipotermia arina pairatu zuten, baina geroago ume gehienek tenperaturaren etengabeko igoera aurkeztu zuten eta inork ez zuen hipotermiarik garatu, non umeek azalez azaleko kontaktuan egonkor mantendu ziren.

Ludington-Hoe eta kideek³¹ 2004. urtean egindako entsegu klinikoan, lehen aipatutako ikerketekin bat eginez, Kanguru Ama Metodoa bi edo hiru orduz praktikatu ostean tenperaturaren igoera eman zela ikusi zen. Interbentzio hau beroaren galera saihesten du azalez azaleko kontaktuan amak umeari emandako beroagatik. Bestetik, jaioberri goiztiarrak termoregulazioa garatzeko gaitasunean eragin handia du ere. Tenperaturaren ematen ziren aldaketak beste sistema

fisiologikoetan eragin positiboak zutela behatu zuten, hala nola, bihotz-birikako funtzioan eta lo-patroian.

Bestetik, Luong eta bestek³² egindako entsegu klinikoan, non pisu baxuko 50 umek kontrol taldean (inkubagailuan) eta beste 50ak azalez azaleko kontaktuan egon ziren amarekin, kontrol taldeko umek energia gehiago kontsumitzen zutela ikusi zen, umek pairatzen zuten estresa zela eta. Horrez gain, termogenesiaren erabilera handiagotuta zegoen amaren bero faltaren ondorioz.

Gorputz-tenperaturarekin jarraituz, Heimann eta bestek, bi ikerketa aurrera eraman zituzten 2013 eta 2014 urteetan^{33, 34}. 2013ko artikuluan³³, termografia infragorria erabili zuten haien ikerketan jaioberri goiztiarren termorregulazioa erregistratzeko. Batez besteko 27 asteko adin gestazionalako eta batez besteko 1322 gramoko pisua zuten 10 umeetan aztertu zen parametro hau. Bertan, azalez azaleko kontaktua praktikatzen zen momentuan, umearen gorputz tenperaturaren igoera nabaria ikusi zen buruan (0.58°C ; $p < 0.05$) eta hanken zonaldean. Eraitza hauek buruko aldean erregulazio prozesu aktiboa ematen dela iradokitzen dute. Burualdea ume goiztiarren gorputz-atal handiena da eta honek tenperatura aldaketei erantzun azkarra ematea ahalbidetzen du. Umea inkubagailuan jartzean, ordea, tenperaturaren jaitsiera esanguratsua ikusi zen zonalde guztietan, besoetan izan ezik. 2014ko urtekoan³⁴, lehen ondorioztatutako datuak baieztatu ziren, non azalez azaleko kontaktuan gorputz-atalen igoera esanguratsua eman zen (0.5°C koa), eta umea inkubagailura eramatean, ordea, tenperaturaren bat-bateko jaitsiera 1°C koa. Hala ere, aurreko ikerketarekin kontra eginez, umea inkubagailuan zegoenean ez zen buruaren jaitsiera esanguratsurik eman.

2010. urtean egindako meta analisi baten arabera³⁵, gorputz tenperaturaren igoera esanguratsua eman zen umea amarekiko azalez azaleko kontaktuan egoterako momentuan, hain zuzen ere, 0.22°C ko tenperaturaren igoera (22 ikerketen arabera, konfiantza interbaloa 95%koa izanda eta $p < 0.001$), eta azalez azaleko zainketak burutu ostean 0.14°C ko igoeran mantendu zen (12 ikerketen arabera, 95%ko konfiantza interbaloa eta $p < 0.001$). Azpitaldeko analisisia aurrera eraman zenean, herrialde azpigaratuetan tenperaturaren igoera nabariagoa ematen zela ikuskatu zen, herrialde garatuekin konparatuz.

Bestetik Park eta kideek³⁶ burututako ikerketan, adin gestazionalaren arabera emaitzetan aldaketak egon daitezkeela ikuskatu zuten. Gorputz tenperaturaren bariazioa Kanguru Ama Metodoa aurrera eramaten zen momentuan hobeagoa zen 33-36 aste tarteko adin gestazionala zuten jaioberrietan 29-32 aste tartekoekin konparatuz.

Momentuz, azalez azaleko kontaktua ez da praktika estandar bat, baina hala ere kontuan izan behar da ikerketa desberdinek erakutsi dutela inkubagailuan bakarrik ematen diren zainketekin konparatuz, tenperatura hobetu erregulatzen dela jaioberri goiztiar edota pisu baxukoetan,

hauetan onurak ekarriz ^{34,37}. Hala ere, azalez azaleko kontaktuen ostean, arreta handia jarri behar da umeetan tenperatura jaitsierekin ³⁴.

BIHOTZ MAIZTASUNA:

Jaioberri goiztiarrak izan ditzaketen zailtasun anitzen artean, bihotz-birikako arazoak aurkitu ditzakegu heldugabetasunarekin lotuta. Halaber, goiztiarrek bradikardia aldi gehiago izateko arrisku handiagoa dute ^{38,42}. Bihotz maiztasunari dagokionez, berrikusitako artikuluen arabera, orokorrean gehienak bat datoz, umea klinikoki egonkor mantentzen dela Kanguru Ama Metodoa praktikatzerakoan ^{27, 29-32, 38-42}.

Umea amaren toraxean bertikalki jartzeak bihotz maiztasunean aldaketak eragin ditzake. Izan ere, amaren bularralde bigunean zuzenean jartzea eta besarkaturik egoteak jaioberria lo sakonean sartzera eragin dezake. 2016an Hego Korean burututako ikerketa batean ³⁸, Kanguru Ama Metodoa praktikatu zitzaizen umeen bihotz maiztasuna gehiago gutxitu zen kontrol taldearekin konparatuz, baina desberdintasuna ez zen esanguratsua izan. Bestetik, ikertzaile hauek beste iturri batzuk behatu zituzten (Begum eta bestek 2008an aurrera eramandako ikerketa), non bihotz maiztasuna azalez azaleko kontaktuan egon eta gero hobetzen zela esaten zuten. Alde batetik, posizio eta ohe aldaketagatik eta bestetik, amarekin azalez azal egoteak eta horrek dakartzan tenperaturaren igoera bihotz maiztasunaren hobekuntzan eragina zuela behatu zuten. Beraz, ikerketa honetan Kanguru Ama Metodoa umeak egonkor mantentzeko teknika lagungarria dela behatu zen.

A Korraa eta kideek ³⁹ burututako ikerketan 60 jaioberri goiztiar parte hartu zuten, zeinei aldagaien neurketak egiten ziren Kanguru Ama Metodoa burutu baino lehen eta geroago. Bertan, estadistikoki esanguratsua zen bihotz maiztasunaren beherakada eman zen azalez azaleko kontaktuan egon ondoren. Hala ere, baloreak klinikoki maila normal batean aurkitzen ziren, hau da, 120-160 bitarteko bihotz taupada minutuko. Parametro honekin jarraituz, 2016ko ikerketa batean ⁴⁰, non bihotz-maiztasunaren aldagarritasuna neurtzen zen, honen aldaketa txikiak eman zirela ikuskatu zen. Kanguru Ama Metodoa hasi baino lehen, bihotz maiztasunaren batez bestekoa 159 taupada minutukoa zen eta azalez azaleko zainketak burutu ondoren, 156 taupada minutukoa. Hortaz, umeek ez zituzten ezegonkortasun zinurik aurkeztu.

Lorenz eta kideek⁴¹ aurrera eramandako ikerketan, berriz, sesioan bihotz maiztasunaren igoera txikia ikusi zen (5 bihotz taupada minutuko igoera), baina ez zena klinikoki esanguratsua eta jaioberriek egonkor mantendu ziren. Bradikardia ebentuei dagokionez ez ziren egon aldaketarik. Hala ere, ikertzaile hauek beste ikerketa batzuk behatu zituzten (Bohnhorst eta bestek egindakoak) eta kontrako emaitzak ikuskatu zituzten; Beste hauen arabera, bradikardia aldien igoera ikuskatu zuten jaioberri goiztiarretan, non umeek ezegonkortasuna erakutsi zuten azalez azaleko kontaktuan zehar.

Ludington-Hoek ²⁷ egindako errebisioaren arabera, aurreko ikerketaren emaitzekin bat eginez, bihotz maiztasunaren igoera ere ikuskatu da. Hau jaioberria horizontaletik inklinazio posizioa mugitzearen ondorioz gertatzen da. Egoera hau umea inkubagailutik azalez azaleko kontaktura pasatzerako momentuan eman daiteke. Errebisioan analizatutako entsegu klinikoaren arabera, Kanguru Ama Metodoan bihotz maiztasunak gutxieneko igoera egiten du, orokorrean limite normaletan mantenduz eta inkubagailua edota sehaskan dauden jaioberrieekin alderatuz estabilitate gehiago erakutsiz. Bestetik, amarekin azalez azaleko kontaktuan dauden umeetan bihotz maiztasunaren aldagarritasuna egonkorragoa dela behatu da, inkubagailuan bakarrik dauden jaioberrieekin konparatuz.

Bestetik, Mitchell A.J. eta bestek ⁴² 27-30 aste tarteko adin gestazionala zuten 38 jaioberrieekin entsegu kliniko bat burutu zuten. Ausaz, 19 umeek Kanguru Ama Metodoa jaso zuten (2 ordu egunero, beste 22 orduak inkubagailuan) eta kontrol taldeko 19 jaioberriek inkubagailuko zainketak jaso zituzten. Azalez azaleko kontaktuan zeuden momentuan, umeetan oso nabaria zen bradikardia-aldi gutxiago pairatzen zituztela orduro ($p=0,048$), kontrol taldearekin konparatuz. Bestetik, ez ziren aldaketa nabariak ikusi talde esperimental eta kontrol taldearen artean inkubagailuan egon ziren denboran zehar. Ume guztiak kafeina orala hartzen zuten, 3 umeek CPAP jaso zuten eta 15 umeek oxigeno osagarria zuten, beraz, ez dago guztiz argi interbentzio hauek zer nolako eragina edota zer elkarrekintza zuten emaitzetan. Artikuluan aipatzen da beste ikertzaile batzuen arabera (Poets, Reher eta bestek) interbentzioa eraginkorragoa dela umeak kafeinarekin eta CPAParekin ez badaude tratatuta.

Loung eta bestek ³² aurrera eramandako entsegu klinikoan, berriz, bihotz maiztasunari dagokionez desberdintasun nabariak ikusi ziren honen estabilizazioan, SCRIP puntuazioaren arabera. SCRIPen bitartez, jaioberri goiztiarren bihotz-birika sistemaren estabilitatea neurtzen da, zenbat eta puntuazio gehiago lortuz egonkortasun handiagoa izanez. Amagandik bananduta izan ziren umeak, hau da, bakarrik inkubagailuan zeudenak, bihotz maiztasunaren ezegonkortasuna aurkeztu zuten lehenengo sei orduetan. Aurkeztutako bradikardia, temperatura eta arnas maiztasunarekin gertatzen zen bezala, umea amagandik banandua izatearen erantzun estresorea izan litekela ondorioztatu zen.

2014. urtean egindako ikerketa batean ³⁰ non partaideak pisu baxuko umeak ziren, Kanguru Ama Metodoa praktikatzan zen momentuan bihotz maiztasunaren handiera bat ikuskatu zen, estatistikoki esanguratsua zena ($p < 0,001$). Sesioak egiten ziren bitartean, hiru egunetan zehar ume guztiak bihotz maiztasun egonkorak aurkeztu zituzten (100-170 bihotz taupada minutuko artean).

Ludington-Hoe eta kideek ³¹ burututako entsegu klinikoan, bradikardia eta takikardia aldiak eman ziren bi taldeetan pre-test eta post-testan. Kanguru Ama Metodoa praktikatzan zen momentuan (test periodoa), berriz, ez ziren bradikardia momenturik eman eta jaioberriak egonkor mantendu

ziren. Gainera, bihotz maiztasuna 8 taupada minutuko igo zen talde esperimentalean zeuden umeetan, baina ez kontrol taldekoetan.

2008ko artikulu batean²⁹, umeak azalez azaleko kontaktuan zeuden heinean, parametro honen jaitsiera ikusi zen. Hau gerta daiteke aktibitatea gutxiagotuta dagoelako. A Korra eta bestek³⁹ egindako ikerketan ere, Kanguru Ama Metodoa aplikatu baino lehen eta geroagoko datuak konparatuz, bihotz maiztasunean beherakada esanguratsua ikusi zen, betiere estabilitatea mantenduz (120-160 arteko bihotz taupada minutuko).

Bestetik, Mori eta bestek³⁵ 2010an argitaratutako meta analisiaren arabera, non aldagai honi dagokionez 12 ikerketa berrikusi ziren, ez dago ebidentziarik bihotz maiztasunaren aldaketak gertatzen direnik azalez azaleko kontaktua egiten den bitartean edo lehen. Estratifikazioa herrialdeen arabera egin zenean, herrialde garatuetan bihotz maiztasunaren handipena ematen zela ikuskatu zen azalez azaleko kontaktua egiten zen bitartean (2,82 taupada minutuko gehiago).

2017an egindako Defilipo eta bestek²⁶ egindako ikerketan, batez besteko bihotz maiztasuna 150 taupada mintukoa izan zen jaioberriek azalez azaleko kontaktuan egon ziren bitartean, tarte normalen barruan. Bestetik, ez ziren aldaketa nabaririk ikusi aldagai honi dagokionez Kanguru Ama Metodoa aplikatu baino lehen eta geroago. Jones eta kideek²⁸ burututako kohorte ikerketan ere bihotz maiztasuna bere maila idealean mantendu zela behatu zen Kanguru Ama Metodoa aplikatzerako orduan.

Nahiz eta ikerketetan desberdintasunak ikusi, non ikertzaile batzuk parametro honen igoera ikuskatu zuten eta beste batzuk, berriz, beherakada, gehienek bat egiten dute jaioberriek egonkor mantentzen zirela ondorioztatuz.

OXIGENO SATURAZIOA:

Lehenengoz, ume goiztiarrak garatzeko narriadura handia izaten dutela kontuan izan behar da. Hori dela eta, oxigenoterapiaren erabilpena ohikoa izaten da biriken heldugabetasuna dela eta. Izan ere, oxigenoa ezinbestekoa da metabolismoarentzat eta funtzio fisiologikoak burutzerako orduan³⁹. Berrikusitako bibliografia kontuan hartuz, artikulu desberdinen artean emaitza desberdinak ikusi dira oxigeno saturazioari dagokionez:

Alde batetik, ikerketa desberdinak ikuskatu dira, non oxigeno saturazioaren hobekuntza ikusi den; Adibidez, Mitchell eta bestek⁴² lehen aipaturiko ikerketan, Kanguru Ama Metodoa jaso zuten umeetan oxigeno-desaturazioaldi gutxiago eman ziren, estatistikoki desberdintasun nabaria izanez kontrol taldearekin konparatuz ($p=0,017$). Bestetik, 2015eko entsegu klinikoan³², oxigeno saturazioa maila optimoetan aurkitzen zen bi taldeetan, bai kontrol taldean eta esperimentalean. Emaitza hauek bat egiten dute A Korra eta bestek³⁹, burututako ikerketan lortutako emaitzekin,

non oxigeno saturazioaren hobekuntza ikusi zuten Kanguru Ama Metodoa 30 minututan zehar burutu ondoren.

2014. urteko ikerketa batean²⁶, oxigeno saturazioaren batez bestekoa Kanguru Ama Metodoa praktikan eraman zen hiru egunetan zehar %5ean hobetu zen, estatistikoki aldaketa nabaria izanda. Sesioaren hasieran jaioberriek %90ko oxigeno saturazioarekin edo baxuagoarekin egon ziren eta sesioaren ondoren guztien oxigeno saturazioa igo zen, betiere maila egonkorrak mantenduz. Gainera, oxigenoaren beharra zuten jaioberriek, honen murrizpena izan zuten Kanguru Ama Metodoa hasi eta lehenengo 15 minututan.

Bestalde, badaude beste ikerketa batzuk non emaitzetan oxigeno saturazioaren jaitsiera ikusi zen edota ez dela mantendu bere maila egokian ^{28,35,41}; Kohorte ikerketa²⁸ baten emaitzetan, Kanguru Ama Metodoa praktikatzan zen denboran zehar jaioberrien oxigeno saturazioa maila egokian erlatiboki denbora gutxi egon zen. Beraz, ikerketa hau aurrekoekin konparatuta, datu desberdinak aurkezten ditu. Bestetik, ikuskatutako meta analisisian ³⁵, azalez azaleko kontaktuan zeuden bitartean umeen oxigeno saturazioa %0,60an gutxitu zela ikuskatu da, efektu negatiboa izan ahal duena jaioberrientzat (10 ikerketen arabera). Azpitaldeetan analisisa burutu zenean, jaitsiera hau batez ere hotzagoak ziren herrialdeetan ematen zen. Lorenz eta bestek ⁴¹ egindako ikerketan, oxigeno saturazioari dagokionez, aldaketa txikiak eman ziren klinikoki esanguratsuak ez zirenak; %1eko jaitsierarekin.

Ludington-Hoe eta bestek³¹ burututako ikerketan, oxigeno saturazioaren beherapena egon zen (%95,3tik %94,3ra) estadistikoki esanguratsua izan zena baina klinikoki ez zuen garrantzi handirik, jaioberriak egonkor mantentzen baitziren. Test periodoan, hau da, Kanguru Ama Metodoan praktikatzan zen bitartean oxigeno saturazioa baxuagoa zen kontrol taldeko umeekin konparatuz. Talde esperimentalean, hamaika umeetatik bederatzik oxigeno saturazio beherakada pairatu zuten, batez besteko beherakada %1ekoa izanda. Kontrol taldean, berriz, hamahiru umeetatik lauk pairatu zuten beherakada hori. Oxigeno saturazioaren beherapena azalez azaleko kontaktuan ematen den gorputz tenperaturaren igoeraren ondorioz izan zitekeela behatu zen. Oxigeno saturazioa baxuagoa zen Kanguru Ama Metodoa praktikatzan zitzaien umeetan kontrol taldean zeuden umeekin konparatuz.

Amaitzeko, Ludington-Hoen errebisioan²⁷, berak ikuskatutako bi meta-analisetan oxigeno saturazioaren inguruko emaitzetan kontraesanak ikusi dira; Lehenengoan, non meta-analisisa entsegu klinikoetan oinarrituz egin zen, oxigeno saturazioa %0,21an igo zen jaioberrietan. Bestetik, kasu-kontrolleko ikerketetan oinarritutako meta-analikian, (Kanguru Ama Metodoa martxan jarri baino lehen, praktikatzerakoan eta ondoren) oxigeno saturazioaren datuak aztertzerakoan, Kanguru Ama Metodoa praktikatzan zen momentuan oxigeno saturazioa %0,6an jaitsi zen.

Oxigeno saturazioari dagokionez emaitzak desberdinak lortu izan dira, non iturri batzuk parametro honi dagokionez jaioberriek egonkor mantentzen zirela behatu zuten. Beste batzuk, berriz, umeetan oxigeno desaturazioak ikuskatu ziren Kanguru Ama Metodoa aurrera eramaten zen momentuan. Beraz, onuragarria izango litzateke honen inguruan ikerketa gehiago burutzea.

TENTSIO ARTERIALA:

Tentsio arterialaren inguruan aurkitutako emaitzei dagokionez, parametro honi buruz hitz egiten duten bi ikerketa aurkitu dira, non emaitzak oso antzekoak: diren ^{36,39} :

Alde batetik, A Korra eta bestek ³⁹ egindako ikerketan 60 jaioberri goiztiar parte hartu zuten. Bestetik, Park eta kideek ³⁶ burututakoan 31 goiztiarrek ziren partehartzaileak. Biek tentsio arterialaren igoera esanguratsua behatu zuten, umeek Kanguru Ama Metodoa jasotzerakoan. Honen arrazoa burua gorantz makurtzeagatik gerta daitekeela ondorioztatu da, non bihotz maiztasuna beherantz egiten duen eta tentsioaren gorakada ematen den, erreflexu vestibular eta baro-erzeptoreen aktibazioagatik. Hala ere, nahiz eta parametro honetan gorakada ikuskatu, ez ziren aldaketa nabaririk behatu Kanguru Ama Metodoa burutzen zen momentuan, non jaioberriek ez duten ezegonkortasunik aurkeztu. Bestetik, aipatzekoa da ere A Korra eta kideek ³⁹ beste ikerketa batzuk behatu zituztela non ez ziren aldaketa esanguratsuak ikusi tentsio arterialean azalez azaleko kontaktuan egon baino lehen edota ostean.

Hortaz, ikerketa desberdinek bat egiten dute parametro honen emaitzen inguruan non, nahiz eta tentsio arterialaren igoera egon, aldaketa hau ez den nabaria izan eta jaioberriak klinikoki egonkor mantendu ziren ^{36,39} .

ARNAS MAIZTASUNA:

Kanguru Ama Metodoa onuragarria izan daiteke ume goiztiarraren arnas funtzioarentzat. Postura bertikala dela eta, diafragmaren eraginkortasuna eta birikaren funtzioa handitzen da, oxigenazioa hobetuz eta bihotz-birikaren estabilizazioa suspertuz. Azalez azaleko kontaktuan 'igel posizioa' dute umeek, hots, 30/40° arteko inklinazio horizontala, biriken alboko eta goiko zabaltze onena ahalbidetuz. Modu honetan, apneaaldiak murrizten dira. Bestetik, posizio honek saihesten estabilizazioa ere suspertzen du, diafragma eta sabelaldeko muskuluen sinkronizazioa hobetuz ^{26,27} .

2017ko ikerketa batean²⁶ Silverman-Anderson puntuazioa erabili zen jaioberriengan arnasketa zailtasunak ebaluatu eta identifikatzeko. Eskala honetan, non 0tik 10era puntuatzen den, zenbat eta puntu gehiago izan, jaioberriak arnas zailtasun handiagoa izango du. Kanguru Ama Metodoa aurrera eramaten zen momentuan arnas maiztasunaren eta Silverman-Anderson puntuazioaren jaitiera nabaria ikusi zen. Honek umeak azalez azaleko kontaktuan hartzen duen posturarekin harremana du; Izan ere, postura horretan egoteak lo sakona eta erlaxazioa suspertzen du.

Hortaz, ikerketa honetan ikusi zenaren arabera, Kanguru Ama Metodoaren sesioa aurrera eramanean ostean, Silverman-Anderson puntuazioaren eta arnas maiztasunaren murrizpena agertzen zen, honek jaioberrien arnas-patroiaren hobekuntza adieraziz.

Ludington-Hoe eta bestek³¹ burututako entsegu klinikoan, Kanguru Ama Metodoa martxan jarri baino lehen eta geroko momentuetan, bai kontrol taldea eta talde esperimentala, biek erakutsi zuten arnas periodikoa. Hala ere, talde esperimentalean Kanguru Ama Metodoa praktikatzeko momentuan ez ziren apneaaldiak ikusatu. Izan ere, momentu horretan umeetan arnas maiztasunaren jaitsiera ikusi zen, honek arnasketa erregularragoa izatera lagunduz.

Luong eta bestek³² burututako entsegu klinikoan, lehen aipatu bezala, desberdintasun nabariak ikusi ziren bihotz maiztasunean eta baita ere arnas maiztasunean, SCRIP puntuazioan lortutako emaitzen arabera. Azalez azaleko kontaktuan, umeak egonkortuta zeuden. Kontrol taldean zeudenak, berriz, lehenengo hiru/lau ordutan arnas ezegonkortasuna aurkeztu zuten. Iranen burutako ikerketa batean⁴³ ere emaitza antzekoak aurkitu ziren, non arnas maiztasunean aldaketa nabaria ikusi zen Kanguru Ama Metodoa praktikatzeko zuten umeetan. Kontrol taldean zeudenak berriz, ez zuten aldaketa nabaririk izan ($p > 0.05$). 2014 urteko beste ikerketa batean³⁰, parte hartu zuten jaioberri goiztiarrek ez zuten oinarriko arnas zailtasunik. Hiru egunetan zehar, sesioetan umeetan arnasketa patroian aldaketa esangarriak agertu ziren ($p < 0.001$). Kanguru Ama sesioetan, umeek arnasketa erregularra erakutsi zuten eta sarritan lo geratzen ziren. Sesioetan zehar jaioberrien artean inork ez zuen apnearik garatu.

2014an⁴⁴ argitaratutako beste ikerketa baten arabera, non ama eta umearen arteko bihotz-birika funtzioaren erlazioa behatzen zen, ezegonkortasuna sorrarazten duten asaldurak egon zitezkeela ikusi zen. Hau da, zaintzailearen bihotz maiztasuna umearen arnas egonkortasunean eragina izan ahal zuela. Hori zela eta, ume batzuk erantzun kardiorrespiratorio hobetua erakusten zuten eta beste batzuk ez.

Ludington-Hoe²⁷ 2011an burututako errebisio bibliografikoan, Kanguru Ama Metodoa arnas maiztasunean efektu egonkortzailea zuela ikusatu zen. Berrikusi zituen ikerketa desberdinen arabera, Kanguru Ama Metodoa praktikatzeko momentuan inkubagailuan bezalako arnas maiztasuna mantentzen zela behatu zen, bai eta 10 arnasketa minuturoko igoera ere. Parametro honen igoera pronoko posizioan egoteagatik gerta zitezkeela ondorioztatu zen. Hala ere, umeek klinikoki maila egonkorretan mantentzen ziren eta inkubagailuan baino estabilitate handiagoa zegoela erreparatu zen. Apnea aldiei dagokionez, emaitza desberdinak behatu ziren; Aztertutako entsegu kliniko gehienetan apneaaldiak gutxitzen zirela ikusatu zen Kanguru Ama Metodoa praktikatzeko denboran, inkubagailuan bakarrik emandako zainketekin konparatuz. Errebisioko beste ikerketa batzuk, berriz, inkubagailuan eta azalez azaleko kontaktuan zeuden umeek apnea aldi berdinek aurkeztu zituzten. Errebisioko beste ikerketa batean, berriz, Kanguru Ama Metodoa praktikatzeko bigarren orduan apnea aldiaren igoera ikusatu zen, oxigeno desaturazioarekin batera (Sat O₂ <80%).

Parametro honen emaitzak ikusita, orokorrean ikerketa gehienek jaioberrien arnas maiztasuna maila egonkorretan mantentzen direla ondorioztatzen da. Izan ere, kanguru posizioak arnasketaren mekanika errazten du, arnasketa zailtasunak gutxituz eta umea egonkor mantenduz ²⁶.

ONDORIOAK ETA LIMITAZIOAK:

Kanguru Ama Metodoa jaso zuten jaioberri goiztiar edota pisu baxukoetan konstanteak egonkor mantendu zirela ikusi da. Artikulu batzuetan desberdintasunak ikus daitezke, non batzuetan estadistikoki aldaketa nabariak ikuskatu diren bizi-konstante desberdinen parametroetan eta beste kasu batzuetan berriz, desberdintasuna ez da nabaria izan. Hala ere, artikulu gehienetan umeek egonkor mantendu dira amarekin azalez azaleko kontaktuan zeuden bitartean.

Bestetik, Kanguru Ama Metodoa erizaintzak jaioberrietan burutzen dituen interbentzioen artean, eraginkortasun handienetarikoa izan daitekela ikuskatu da, bereziki pisu baxuko edota jaioberri goiztiarrentzat eta baita ere amarentzat.

Hala ere, oraindik ezjakintasun handia dago praktika honen inguruan. Horregatik, umearentzat eta gurasoentzat praktika onuragarria eta kostu gutxikoa dela ikusita, ezinbestekoa da Kanguru Ama Metodoari ikusgarritasuna ematea eta osasun profesionalei, zehazki erizainei, beharreko formakuntza espezifikoa ematea, metodo hau aurrera eramateko ospitalean eta alta ostean gurasoek etxean jarraitu ahal izateko.

Bestalde, Espainian aurkitzen den egoera kontuan izanda, non jaioberrien unitateetan gurasoei sarbidea duela gutxi onartzen hasi zitzaien eta, honekin batera, ospitaleetako unitate desberdinen artean heterogenitate handia dagoela ikusita, interbentzio hau praktikan jarri ahal izateko orduan zailtasun bat da.

Beste alde batetik, errebisio bibliografikoa aurrera eramateko orduan zenbait muga aurkitu dira:

